

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



AGENDA 21eko Foroa

2009ko urtarrilaren 29an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:00etara.

2009. urte berriari hasiera emateko hartu dugun atsedenen ondoren, gaur Legazpiko Agenda 21eko Foroak urteko ibilbide berriari ekin dio. Eta nola egin dugu hori? abiatan eta energiaren betetik noski!

Eta horixe izan da, batez ere, gaurko "gai nagusia": mugikortasuna gure herrian eta, bereziki, egokitzen ari den bidegorria eta horren erabileraren sustapena. Gai horrez gain, hainbat ohar eman dira eta, azkenik, urte berri honetarako aurreikusita ditugun tailerren egutegiaren berri eman da.

Baina hori guztia zehatzago emango dugu jarraian,... goazen!

● Ezer baino lehen, ... parte hartu duen taldea

Azken finean, bera da Legazpin dugun bilgune honi esanahia, izaera, edukia, indarra,... ematen diona. Eta esatea gaizki badago ere, Foro honi begira daude Euskadiko beste udalerrri asko.

Horregatik, eta gure ibilbidean eta eraikitzen ari garen horretan elkarrekin ikasten eta hobetzen jarraitzeko zuekin guztiekin kontaktatzen dugulako, **eskerrik asko!!!** Gaur bereziki:

Juncal Fernández ♦ Miriam Orozco ♦ Isabel Vallejo (Olazabal institutua) ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Bixente Garmendia ♦ Martin Gonzalez Ausin ♦ Montse Vallejo ♦ Iñaki Mauleon ♦ Sole Arostegi ♦ Arantxa Lobo ♦ Arantxa Seguro (Haztegi Ikastola) ♦ Joxean Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Begoña Santillan eta Asun Alkorta (Iratzarri) ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Jose Luis Cid ♦ Eugenio Gil ♦ Ana Manzanos (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Maite Lazaro ♦ Iker Azurmendi ♦ Sotero Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● **Hastera goaz! Aztertu diren gaiak, banan-banan**

Legazpiko mugikortasun iraunkorreko Plana. Obren egoera eta bidegorriaren gaineko debatea

Tailerra deituz bidali dugun eskutitzean zehaztu dugun bezalaxe, gaurko ezarrita dugun helburua guztion artean ondoko galderari erantzuna ematea da: "nola bultza dezakegu bidegorriaren erabilera Legazpiko herritarren artean?"

Galdera bera izango da hurrengo tailerrean aztertuko duguna (otsailaren 26rako aurreikusita duguna), gaur atarian geratu gara eta. **Gaurko dinamika, taldearen beharretara "egokitu" dugu; izan ere, bidegorria egiteko herrian eman diren aldaketei buruz hitz egiteko beharra izan du taldeak** (zirkulazioan eman diren aldaketak, aparkalekuak, bidegorriaren ezaugarriak,...) eta Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planaren muinaz hitz egin da.

Legazpiko mugikortasun iraunkorreko plana eta bidegorriaren erabilera izan ditugu hizpide eta guztion artean hobe daitezkeen gaiak eta ditugun zalantzak jarri ditugu mahai gainean (Legazpiko bizilagunen zalantzak ere ekarri dira). Eta izpiritu eraikitzailearekin, eta mugikortasun iraunkorreko plan horren bultzatzaile nagusienetako bat Foroa bera izan dela jakinik (udalarekin batera), gai horiek "irauli" eta aldeko argudioak ematen eta azaltzen saiatu gara. Ikus dezagun nola!

- **Debataari hasiera eman aurretik, zein fasetan dago Legazpiko Mugikortasun iraunkorreko Plana?. Informazioa egin diren eta aurreikusita dauden jarduketei buruz.**

Inmak nobedadeen berri eman digu eta horretarako ondoko mapa erabili du:



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Esandakotik, ondokoak nabarmendu nahi ditugu:



- Poliki-poliki, tartez tarte, bidegorria egokitzen ari da Planean diseinatutako "eraztunean". Horrela bada:
 - Patrizio Etxeberria kalean egiten ari diren lanak hilabete batean edo bitan bukatuta egotea espero da; kale hori 30. Area izendatuko da eta zirkulazioa noranzko bakarrekoa izango da.
 - Gaztetxetik igaro den bide-tartea oso estua da eta bertan ez dago bidegorria jartzeko lekurik.
 - Momentuz, ondoko lanak daude egiteko:
 - Laubideko aldapa.
 - Ikastolaren eta Latxartegi kalearen arteko bide-tartea; hori aurten egingo da.
 - Kultur Etxea eta Osasun-zentroa dauden ingurua (30. Area izango da) eta Laubide kalea (oinezkoentzat egokituko da); eremu horietan egingo diren lanak urte honen erdialdean hastea espero da.
 - Esan beharra dago, eguraldi benetan petrala dugulako (bidegorria egiteko lanekin hasi garenetik euria eta euria besterik ez dugu izan), bidegorriaren seinale horizontal guztiak jartzea falta dela. Seinale horiek bat etorriko dira zirkulazio-arauekin eta hauxe izango da lehentasunen hurrenkera: lehenbizi oinezkoek izango dute lehentasuna, gero bizikletariak eta, azkenik, motordun ibilgailuek.
 - Horrezaz gain, obrak egiten ari diren heinean, bertan dauden traba arkitektonikoak kentzen ari dira.
 - Azkenik, Udala lanean ari da, Mankomunitatearekin batera, garraio publikoaren proposamen berri batean (hori ere mugikortasun iraunkorreko Planean dago jasota; proposamen horren arabera garraio-zerbitzua eskainiko zaie auzo desberdinei eta eskualdeko udalerriei eta horrek hainbat hobekuntza ekarriko ditu) ordutegi zabalagoa, ospitalera joateko zerbitzu zabalagoa,....

- **Legazpiko mugikortasun iraunkorreko plana eta bidegorria egitearen gaineko debatea. Batetik jarduketa zalantzan jartzen dituzten iritziak eta argudioak daude eta bestetik jarduketaren aldekoak daude.**

Nola baloratzen ditugu Mugikortasun Iraunkorreko Planaren barruan egiten ari diren jarduketak? eta, bereziki, nola baloratzen dugu bidegorri berria?. Kalean, bizilagunen zein bestelako hausnarketak jaso ditugu?

Debatea aberatsa, zintzoa eta bizia izan da. Foroan parte hartu dutenen iritziak izateaz gain, Foroak beste bizilagunen iritziak, zalantzak, kexak,... jaso ditu. Eta hori ona da! Foroa Legazpiko "antena" bat dela erakusten digulako.

Horrela, guztiok ulertu ditugu Planarekiko herritarrek dituzten desadostasunak, haserreak, eta ezkortasuna; baina, guk ikuspegi ezkor horri bira eman nahi izan diogu argudioak emanez.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planari eta bidegorria egiteari buruz sortzen zaizkigun edo esan dizkiguten zalantzak, mesfidantzak,....

- Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planaren lehenengo jarduketak burutzeak (bidegorria egokitzea, zirkulazioaren norabideak aldatzea,...) aldaketa garrantzitsuak ekarri ditu eta kalean zalantzak, kexak,... entzuten eta sumatzen dira; horrelakoak adibidez:
 - Benetan bidegorriaren beharra al zegoen Legazpin? Horrek gainera, aparkalekuen kopurua dezente murriztea ekarri du.
 - **Bidegorriaren ibilbidea** ibilbide egokiena al da? (batez ere, hainbat tokitan aldapa handia dagoela kontuan hartzen badugu, gaztetxeko aldapa adibidez; hobe daitezkeen bestelakoak ere badaude, hala nola: seinaleak, zabalera hainbat bide-tartetan, hainbat lekurekin eta kalerekin dauden loturak, zenbait lekutan erregistro-estalki arriskutsuak daude,...)
 - Ez al da **oinezkoa** izango Plan honen **kaltetu nagusiena**?

Bira emango diogu.... arrazoiak emanetz!

Legazpiko mugikortasun iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz:

- Oso garbi izan behar ditugu **Legazpiko mugikortasun iraunkorreko Planaren helburuak**. 9,5 milioi euroko aurrekontua duen Planak (eta beraz, agian hiru legealditan beteko dena), ondoko helburuak ditu:
 - Legazpiko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, mugikortasunari dagokionez;
 - Eta zehatzago, oinezkoari (lehenbizi) eta bizikletariari (ondoren) lehenetsua ematea, era berean hiriguneko kaleetan ibilgailu partikularraren erabilera murriztea bultzatuz.
- Legazpin joan-etorriak bizikletan egitearen aldeko apustua bultzatzea ez da helburu isolatua; Legazpiko eraztuna Zumarragara luzatuko da gero eta, han, **lotura** izango du Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinatu duen eta egiten ari den bidegorri nagusiarekin. Sare horrek, era berean, protagonismo handiagoa emango dio bizikletari garraio-modu gisa, autoaren kalterako.
- Gainera, **Foro honetan** udal teknikariek batera luze **landu den proiektua da**; azkenik, mugikortasun gaietan **espezializatuta dagoen talde teknikoak diseinatutako proiektua da**. Plan osoa jendaurrean agerian jarri zen gainera eta udalerrian eta auzo desberdinetan aurkeztu zen.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Bira emango diogu.... arrazoiak eman ez!

Egin beharreko lehen jarduketei dagokienez:

- Egia da, **ez dela gauza bera Plana -eta bereziki bidegorria- paperean ikustea edo kalean; gauzak asko aldatzen dira**. Hala ere, hobe daitezkeen alderdiak geratzen diren arren eta zehaztasun guztietan %100 asmatu ez badugu ere, gure helburua egindakoa balioestea eta sustatzea da, aldaketa ahalbidetuz eta hoberako izan dadila lortuz.
- Kontu eta zalantza zehatzei erantzuna eman ez:
 - Bidegorriaren ibilbidea eta zirkulazioan eman diren aldaketak ez dira ezustean eman. Oinez (oinezkoentzako egokitutako espaloi zabalagoekin) eta bizikletaz (Legazpiko ekipamendu nagusienak eta leku esanguratsuenak lotuko dituen eraztun zirkularraren bidez) egingo diren joan-etorriak sustatzen dituen Planaren helburuari erantzuten diote. Horretarako, teknikoki, bide-eskema aldatu beharra zegoen eta autoentzako herri osoan noranzko bakarra izango zuen beste "eraztun" bat egin behar zen (udalerrian sartzeko eta bertatik irteteko bide-loturekin); oinezkoentzat zabalagoak izango diren espaloiak eta eremuak eta bidegorria integratuko zituen eskema bat.
 - Planteamendu honetan, bide-trafikoari eta bidegorriari bizkortasun handiagoa emango dion elementu garrantzitsua falta da: industrialdeko errotonda.
 - Bidegorriaren zabalera Gipuzkoako Foru Aldundiak bide horietarako ezarritako neurriak betetzen ditu. Horrela, 2,20 metro da gutxieneko zabalera eta, ahal izan den tokian, zabalera handiagoa eman zaio.
 - Aparkalekuak: Egia da bidegorria egitean aparkalekuen kopurua murriztu egin dela (eta horrek Planaren filosofiari erantzuten dio) baina egia da ere, Udala udalerrian aparkatzeko leku berriak egokitzeko alternatiba desberdinak aztertzen ari dela.

- **Bukatzeke, mezu argiak eta etorkizunerako baliagarriak**

Debatea ez litzateke bidezkoa izango mugikortasun iraunkorreko planaren eta bertatik sortzen diren jarduketan "aldeko" eta "kontrako" arrazoiak ematera bakarrik mugatuko balitz. Foroko kideok, eta ingurumen gaitan sentsibilizatuta gaudenok, badakigu **kultur aldaketek** (kasu honetan oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiliz joan-etorriak egiteko mugikortasun-eredu desberdinaren alde egitea) **denbora, pazientzia eta konstantzia eskatzen dutela**. Ohiturak aldatzea, oso errota dauden portaera-arauak aldatzea eta, horrezaz gain, hainbat gaitan (erosotasuna adibidez) joera nagusien kontra joatea ez da erraza.

Horrela, Foroak berak Legazpirako mugikortasun iraunkorraren alde egin dugun apustua indartzen duten alderdiak azpimarratu ditu:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean


- **Aitzindariak gara!** Euskadiko autonomia erkidegoan eta antzeko ezaugarriak dituzten udalerrien artean Legazpi aitzindaria da mugikortasun-eredua aldatzeko erabakia hartu duelako. Eta lehenengoak izatea harro egoteko modukoa dela ulertzen dugu, beldurrak, zalantzak,... gainditzeko akuilua izateaz gain.
- **Aurreratu egin gara.** Bizitzako bestelako eremuetan bezalaxe, gaur egun nagusi den mugikortasun-eredua (autoa da protagonista) aldatu egingo da, ezin delako beste modura izan; eta eszenatoki berri horren aurrean, Legazpi aurretik doa. Legazpi dagoeneko hasiera eman dio aldaketa prozesuari eta kultur aldaketari eta horren aldeko eta kontrako ondorioak esperimendu ditu.
- **Garrantzitsuena aurrera egitea da, poliki-poliki eta naturaltasunez.** Planean aurreikusitako jarduketak egitean ezinbestekoa izango da bizilagunak ondo informatuta izatea; horrezaz gain, sentsibilizazio ekintzak burutzea komeni da. Eta guzti horri denbora gehitu behar diogu: denbora, egin beharreko obrak ondo buka daitezten; denbora, legazpiarrek aldaketak ezagutu, barneratu eta onar ditzaten; denbora, obrak egitean eta jarduketa berrien aurretiko diseinuan eman daitezkeen "akatsak" zuzentzen joan daitezten; denbora, oinezkoen eta bizikletarien aldeko apustua egiten duen udalerria izateak dakartzan onurak ikusten eta esperimendatzen joan gaitzen; ...
- **Saia gaitzen etorkizuna baikortasunez irudikatzen!** Zergatik ez dugu irudikatuko bidegorria bizikletan doazen pertsonekin; bizikletaz erosketak egitera, osasun-zentroa joateko, kiroldegira, udaletxera, industrialdera,...?

Horrela bada,... aurrera egin dezagun! Plana gurea egiten jarraituko dugu! Legazpin mugikortasun iraunkorreko Plana arrakastatsua izatearen aldeko apustua egingo dugu!

Informazio oharrak

Ohi bezala, eta bukatu aurretik, tartetxo bat utzi dugu Agenda 21eko Foroaren "berrietarako". Tailerrak egiten ditugu baina tartean hainbat berri, ohar, nobedade,... sortzen dira eta horiek konpartitu beharra sentitzen dugu; segidan, Inmak gaur azaldu dizkigun kontuak jasotzen ditugu:

- Oraintsu, "**Kontsejutik**" izeneko **Legazpiko udal aldizkariaren ale berezia** kaleratu da. Bertan, Agenda 21eko Tokiko Ekintza-plan berria egiteko burutu den prozesuari buruzko informazioa sartu da. Inmak eman digu azken orduko berria. Eta aldizkaria aste honetan banatuko da.
- **Bidezko merkataritza** Legazpiko udaletxean: Hilabete honetan zehar, Udalak lan egingo du Bakeaz eta Ideas elkarteekin eta Traperos de Emaus fundazioarekin, udaletxean egiten diren erosketetan bidezko merkataritza bultzatzeko.
- Modu berean, Udalak **klima-aldaketaren aurka borroka egiteko** konpromisoa sinatuko du.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Horrezaz gain, **Foroaren proposamen zehatza** jaso dugu: Foroan lantzen diren gaiak buruz udal txanetan garatzen ari diren proiektuen, ekimenen, izapideen,... gaineko informazioa izateko bideak aztertzea eta proposatzea komenigarria dela uste dugu eta lan hori Udaleko Agenda 21 sailaren bidez egin beharko litzatekeela pentsatzen dugu (adibidez, hirigintzako eta eraikuntzako Ordenantza). Hau da, badakigu tarte honetan ezin dugula guztia aztertu (eta badakigu "berrietarako" tarte honi denbora asko ezin diogula eskaini); baina informazioa izatea nahiko genuke, adibidez bileran bana daitekeen orri informatiboaren bidez.

● **Eta hurrengo hitzorduarekin eta hausnartzeko galdera batekin bukatzen dugu...**

Gaurko eztabaida beharrezkoa zen eta baliagarria eta argigarria izan dela uste dugu; horrekin eman diogu bilerari amaiera. Baina jarraituko dugu! Galdera bati erantzutea falta zaigu eta hau da galdera hori: "Nola bultza dezakegu bidegorriaren erabilera Legazpiko herritarren artean?"

Ideiak, proposamenak,... pentsatzeko astia daukazue baina otsailaren 26ra arte bakarrik. Egun horretan, elkarrekin landuko dugu gaia!

Ordurarte, mila mila esker eta izan ongi!